

2016ko azaroaren 29ko 25/2016 FORU DEKRETUA, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Foru Dekretua eta onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen ditu bertan.

Testuaren bukaeran, erregelamenduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Finantza arloan informazioaren nazioarteko trukea tresna guztiz baliagarria da zerga administrazioek ziurtatu dezaten zergadunek beren zerga obligazioak behar bezala betetzen dituztela. Azken urteotan hala aitortzen ari dira nazioartean bai zerga iruzurraren aurka jarduten duten administrazioak eta bai Europar Batasunaren esparrua eta Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea (ELGA).

Abiapuntutzat hartuta nazioarteko konplimendu fiskala hobeto betetzeko eta atzerriko kontuen zerga konplimenduari buruzko lege estatubatuarra (FATCA) aplikatzeko gobernuen artean prestatutako akordio ereduak, 2013an Alemaniak, Espainiak, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuek Estatu Batuekin negoziatua, bost herrialde horiek informazio truke automatikoa ahalik eta herrialde edo jurisdikzio gehienetara zabaltzeko asmoa agertu zuten. Horretarako, zerga arloko informazio trukeko proiektu aitzindari komun bat iragarri zuten, aldeaniztuna, automatikoa eta estandarizatua. Ekimen horren ondorioz, «G-20» taldeak ELGA erakundeari agindu zion gobernu arteko akordio horretan oinarrituta nazioarteko arau bakar bat prestatu zezala finantza-kontuei buruzko informazio fiskalaren truke automatikoa erabiltzeko.

Horren emaitza gisa, 2014. urtearen hasieran, ELGAK argitara eman zituen Agintaritzak Eskudunerako Akordio Ereduak eta Informazioa komunikatzeko estandar komunak; eta 2014ko uztailan, ELGAKo Kontseiluak iruzkinak argitaratu zituen akordio eredu horri buruz eta informazioa komunikatzeko estandar komunari buruz. Oinarriak horiek zirela, 2014ko urriaren 29an 51 herrialde eta jurisdikzio sinadura jarri zioten Berlinen finantza-kontuen informazio truke automatikoari buruz Agintaritzak Eskuduneko adostutako Akordio Aldeaniztunari, gai fiskalen arloan elkarri laguntza administratiboa emateko 1988ko urtarrilaren 25ean Estrasburgon egindako hitzarmenaren testu kontsolidatuak 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Europar Batasunaren esparruan, 2011ko otsailaren 15ean Kontseiluak 2011/16/EB Zuzentaraua eman zuen, fiskalitatearen esparruko lankidetzak administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indarrak gabe utzi zuena. Nahiz eta, ordurako, 2011/16/EB Zuzentarauak derrigorrezko egiten zuen estatu kideen artean informazio truke automatikoa egotea, derrigortasun hori izaera ez-finantzarioko errenta eta ondareko kategorien gainean ezartzen zen, informazioaren eskuragarritasunean oinarrituta. Estatu kideen arteko informazio truke automatikoa finantza-kontuetara zabaltzeko asmoz, informazioa komunikatzeari begira ELGAK landutako estandar

komunarekin koordinatuta eta modu bateragarrian, 2014ko abenduaren 9an Kontseiluak 2014/107/EB Zuzentaraua onartu zuen, hain zuzen ere 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez.

Nazioarteko akordio horiek eta gorago adierazitako zuzentaraua ez ezik, foru dekretu honek xedapen hauek ditu oinarri Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 1. artikuluko 2. apartatua eta 17. artikuluko 5. apartatua, elkarren arteko laguntzaren esparruko zerga betebeharrei buruzkoak biak, eta, bereziki, foru arau horren hamabosgarren xedapen gehigarria, zeinak esaten baitu finantza-erakundeak behartuta daudela finantza-kontu jakin batzuen titularrak direnen egoitza identifikatzera eta zerga Administrazioari kontu horiei buruzko informazioa ematera, eta, aldi berean, kontuen titularrek beren zerga egoitza identifikatu behar dutela finantza-erakundeen aurrean. Xedapen horrek dioenez, bestalde, informazio hura eman aurretik, finantza-erakundeak behartuta daude finantza-kontuen titular diren pertsona fisikoei adieraztera haiei buruzko informazioa Zerga Administrazioari komunikatuko zaiola eta hura 2011/16/EB Zuzentaruaren arabera dagokion estatu kideari helaraziko zaiola. Kontua informazio komunikazioari lotuta geratzen den lehen urtearen ondorengo urte naturaleko urtarilaren 31 baino lehen egin behar da komunikazio hori.

Foru dekretu honen bitartez barne ordenamenduan txertatzen dira finantza-erakundeek zerga administrazioari finantza-kontuei buruzko informazioa emateko jarraitu behar dituzten arauak eta informazio hori lortzeko aplikatu beharreko prozedurak. Horrekin ahalbidetu nahi da Zerga Administrazioak ere automatikoki trukatzea jasotzen duen informazioa finantza-kontuaren titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskalari dagokion herrialde edo jurisdikzioko administrazioarekin. Eta hori guztia aintzat hartuta Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaruaren bidez aldatua, eta Finantza-kontuei buruzko Informazio Truke Automatikoaren inguruan Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Aldeaniztuna.

Era berean, 2014/107/EB Zuzentaruaren aplikazio eremua oro har zabalagoa denez interesetan ordaindutako aurrezkiaren etekinak zergapetzeari buruz Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an onartutako 2003/48/EE Zuzentaruarena baino, eta bertan lehenengoari ematen zaionez lehentasuna bigarrenaren gainetik, beharrezkoa da bertan behera uztea Kontseiluaren 2003/48/EE Zuzentaruaren barne ordenamendura ekartzen duten erregelamenduzko xedapenak, informazioaren komunikazioari buruzko betebeharrak ez bikoizteko eta finantza-kontuei buruzko informazio truke automatikoa nazioarteko arau bakarrera egokitzeko.

Foru dekretuak bost artikuluko ditu, hiru xedapen gehigarri eta azken hiru xedapen.

1. artikuluko foru dekretuaren xedea ezartzen du.

2. artikuluan egoitza identifikatzeko eta informazioa emateko obligazioaren eremu subjektiboa definitzen da. Horrela, bertan adierazten da obligazio horri lotuta daudela azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuko eranskinean aurreikusita dauden finantza-erakundeak. Errege dekretu horren bidez finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko obligazioa ezartzen da, baita elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ere.

Eranskin horretan jasotzen da zer arau eta zer prozedura aplikatu behar dituzten finantza-erakundeek haietan irekita dauden finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko, eta kontu horiek informatzeko betebeharrari lotuta dauden zehazteko. Bi kontu mota bereizten dira horretarako:

lehendik badauden kontuak batetik, eta kontu berriak bestetik. Orobat, pertsona fisikoen kontuak eta entitateen kontuak bereizten dira, titularra zein den.

3. artikuluan, finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola dutenen zerga egoitza identifikatzeko obligazioa arautzen da. Identifikatzeko betebeharrak hori informazioa trukatzeko sistema eusten duen giltzarria da, azkenean zerga egoitzaren herrialde edo jurisdikzioak erabakitzen baitu kasuan kasuko kontua informazio betebeharrari lotuta dagoen edo ez. Hortaz, zerga egoitza identifikatzea aldeztu aurreko urrats ezinbestekoa denez informazioa komunikatzeko, eta identifikazio hori finantza-erakundeko kontu guztiei dagokienez egin beharra dagoenez, hura obligazio independente gisa arautu beharra dago.

4. artikulua informatzeko obligazioa jasotzen du. Bertan jasotakoaren arabera, informatzeko betebeharrak hori lotuta daude, bakar-bakarrik, finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak, haien zerga egoitza elkarren arteko laguntzaren esparruan informazio trukea egitera behartuta dagoen herrialde edo jurisdikzioaren batean dagoenean. Finantza-erakundeei segurtasun juridikoa emate aldera, dekretu honetan berariaz ezartzen da dagokion aitortpen informatiboa onartzen duen foru aginduak herrialde edo jurisdikzio horien zerrenda ekarriko duela.

Azkenik, 5. artikulua eman behar den informazioaren edukia zehazten du.

Finantza-erakundeei zerga administrazioari eman behar dioten lehen informazioa 2016. urteari buruzkoa izango da. Informazio horiketa hori 2017an gauzatuko da.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da finantza-erakundeen bi betebeharrak hauek arautzea: batetik, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza identifikatzeko betebeharra, eta, bestetik, kontu horiei buruzko informazioa ematekoa. Horretarako, aintzat hartzen da bai 2011/16/EB Zuzentaraua, hain zuzen ere Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentarauak aldatu zuena fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez, eta bai Finantza-kontuen Informazio Truke Automatikoaren inguruan Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Aldeaniztuna. Gainera, Gipuzkoako Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 17.5 artikuluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat egiten da hori guztia.

2. artikulua. Eremu subjektiboa.

Azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. sekzioko A apartatuan definitzen dituen finantza-erakundeak daude behartuta egoitza identifikatzera eta informazioa ematera foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. Zerga egoitza identifikatzeko betebeharra.

Finantza-erakundeei finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatu behar dute azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuko eranskinean ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Informatzeko betebeharra¹.

Finantza-erakundeak behartuta daude Gipuzkoako Foru Aldundiari finantza-kontuen aitortpen informatibo bat aurkeztera abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak, zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua onartzekoak, VI. tituluko I. kapituluaren jasotako xedapen orokorreari jarraituz, finantza-kontu horien titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza herrialde edo jurisdikzio hauetako batean dagoenean:

a) Europar Batasuneko beste estatu kide batean, 2011/16/EB Zuzentaraua aplikagarri duen edozein lurraldetan (Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentarauak aldatua, fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez), edo Europar Batasunarekin akordio bat izenpetzeagatik foru dekretu honen 5. artikuluan zehaztutako informazioa eman behar duen beste edozein herrialde edo jurisdikziotan.

b) Informazio trukean elkarrekikotasuna duen beste herrialde edo jurisdikzio batean, baldin eta hari dagokionez Finantza-kontuei buruzko Informazio Truke Automatikoaren inguruan Agintari Eskudunen artean izenpetutako Akordio Aldeaniztunak ondorioak sortu baditu.

c) Espainiarekin akordio bat izenpetzeagatik foru dekretu honen 5. artikuluan zehaztutako informazioa eman behar duen beste edozein herrialde edo jurisdikziotan, baldin eta, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz, informazio trukean herrialde edo jurisdikzio horrekin elkarrekikotasuna badago.

Aitortpen informatiboa urtean behin egingo da, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du foru agindu bidez non, nola eta zein epetan aurkeztu. Aitortpen horretan artikuluko honen a), b) eta c) letretan aipatzen diren herrialde edo jurisdikzioen zerrenda jasoko da, bai eta foru dekretu honen ondorioetarako parte hartzaileak jotzen diren bestelako jurisdikzioak ere.

Guztiarekin ere, finantza erakundeak behartuta egongo dira, halaber, aipatutako aitortpen informatiboa aurkeztera, lehen aipatutako foru aginduan ezarriko den eran eta terminoetan, nahiz eta, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean arduraz jokatzeari buruz jasotzen diren arauak aplikatuta, ondorioztatzen duten ez dagoela informazioa ematera behartzen duen konturik aipatutako eranskinaren VIII. ataleko D apartatuaren arabera.

5. artikulua. Eman beharreko informazioa.

1. Informazio komunikazioari lotuta dagoen kontu bakoitzari dagokionez, informazio hau eman beharko da:

a) Kontuaren titularrak den pertsonaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, helbidea, egoitzako herrialdea(k) edo jurisdikzioa(k), eta IFZ. Kontuaren titulartasuna pertsona fisikoei dagokienean, datu horiez gain jaiotekua eta jaioteguna ere adieraziko dira.

¹ Artikulu hau abenduaren 22ko 34/2020 FORU DEKRETUaren artikuluko bakarrak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharrak ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua aldatzen duena. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2020/12/28ko GAO).

Kontuen titulartasuna entitate batena den kasuetan, gertatzen bada ezen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuko eranskinaren V., VI., eta VII. sekzioetan jasotako prozedurak behin aplikatuta, entitate horretan kontrola pertsona batek edo gehiagok dutela eta pertsona horiek informazio komunikazioari lotuta daudela, aurreko paragrafoan aipatutako informazioa entitateari buruz eta informazio komunikazioari lotuta dagoen pertsona bakoitzari buruz komunikatu beharko da.

b) Kontuaren zenbakia.

c) Informazioa ematera behartutako finantza-erakundearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Zer saldo edo balio duen kontuak aintzat hartutako urtea amaitzean.

Aseguru kontratuetan –eskudiruko balioa dutenetan– eta urtekako kontratuetan, edo eskudiruko balioa edo erreskate balioa hartuko da.

Kontua urte horretan itxi bada, hura itxi izana jakinarazi beharko da.

e) Zaintza-kontuen kasuan:

1.- Interesen zenbateko gordin osoa, dibidenduen zenbateko gordin osoa eta bestelako errenten zenbateko gordin osoa. Zenbateko horiek izan daitezke kontuan gordailututako aktiboekin lotuta urte naturalean zehar sortutakoak, edo kasuan-kasu kontuan bertan zein harekin lotuta ordainduak edo anotatuak.

2.- Informazioa ematera behartutako finantza-erakundeak zaintzaile, artekari, agente izendatu edo beste edozein motatako ordezkari gisa jardun badu kontuaren titularrarentzat, urte naturalean zehar kontuan ordaindutako edo anotatutako aktibo finantzarioak saldu edo amortizatzeagatik izandako sarrera gordin osoak.

f) Gordailu-kontuen kasuan, urte naturalean zehar kontuan ordaindu edo anotatu diren interesen zenbateko gordin osoa.

g) Kontua ez bada aurreko e) eta f) letretan deskribatutakoa, urte naturalean zehar kontuaren titularrari kontuarekin lotuta ordaindu edo anotatu zaion zenbateko gordin osoa, betiere informazioa ematera behartutako finantza-erakundea behartua edo zorduna bada urte horretan. Barruan sartuko da kontuaren titularrari urte naturalean egindako amortizazioen zenbateko osoa.

Informazioak zehaztu behar du zein dibisatan adierazten den zenbateko bakoitza.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, honako salbuespenak egingo dira eman beharreko informaziori dagokionez:

a) Lehendik dauden kontuen kasuan, IFZ eta jaioteguna ez dira komunikatu beharko datu horiek finantza-erakundearen erregistroetan ageri ez direnean eta erakundea horiek biltzera behartuta ez dagoenean araudi aplikagarriaren arabera.

Hala ere, finantza-erakundea, lehendik dauden kontuak informazio komunikazioari lotutako kontu gisa identifikatu eta gehienez ere handik aurrerako bigarren urte naturalaren bukaeran, IFZ eta jaioteguna lortzen saiatuko da, modu arrazoizkoan.

b) IFZ ez da komunikatu beharko egoitzako herrialdeak edo jurisdikzioak horrelakorik ematen ez duenean.

c) Jaiotekua ez da komunikatu beharko, salbu baldintza hauek betetzen direnean:

1.- Finantza-erakundeak datu hori lortu eta komunikatzeko obligazioa duenean, edo Europar Batasunak onartu eta 2015eko urtarilaren 5ean indarrean dagoen edozein tresna juridikoren ondorioz obligazio hori izan duenean.

2.- Datu hori eskuragarri dagoenean finantza-erakundeak mantentzen duen bilaketa elektronikoan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen. 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentzarauaren bidez aldatua fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez, foru ordenamendura ekartzea.

Foru dekretu honen bitartez barne ordenamenduan txertatzen dira finantza-erakundeek zerga administrazioari finantza-kontuei buruzko informazioa emateko jarraitu behar dituzten arauak eta informazio hori lortzeko aplikatu beharreko prozedurak, hain zuzen ere Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentzarauan jasotakoak. Zuzentzara hori 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentzarauak aldatu zuen fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez.

Bigarrena. Arauak ELGAren iruzkinekin bat interpretatzea.

Finantza-erakundeek finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola dutenen egoitza identifikatzeko eta kontu horiei buruz informatzeko obligazioei dagokienez foru dekretu honetan jasotzen diren arauak interpretatuko dira ELGA erakundeak Agintaritza Eskudunerako Akordio Ereduari eta Informazioa komunikatzeko estandar komunari egindako iruzkinekin bat.

Hirugarrena. Identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko betebeharra, Amerikako Estatu Batuek eta Espainiako Erresumak nazioarteko konplimendu fiskala hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act – FATCA legea ezartzeko hitzartutako Akordioarekin lotuta.

Amerikako Estatu Batuek eta Espainiako Erresumak nazioarteko konplimendu fiskala hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act – FATCA legea ezartzeko hitzartutako Akordioaren indarrez informazio komunikazioari lotuta dauden lehenagoko kontuei dagokienez, finantza-erakundeak behartuta daude 2017. urtean zehar lortzera finantza-kontuaren titulartasuna edo kontrola duten pertsonen IFZ estatubatuarra, lehenago lortu ez badute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen. Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua, aldatzea.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, xedapen hauek ezabatzen dira zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuan: VI. tituluaren II. kapituluko 5. sekzioa, eta laugarren xedapen gehigarria.

Bigarrena. Garapena eta aplikazioa.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, bere xedapenetan berariaz jasotako ondorioak eragotzi gabe.



ALDAKETAK

Honako zerrendan Erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***34/2020 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua aldatzen duena (GAO 2020/12/28).***
 - Bere artikulua bakarrak, 4. artikulua aldatzen du.